


Noaua!!



Santa Zeziliko jaialdia,
azaroaren 22an Sutegin



Ana Urdangarin
“Afrika beltza
ezagutzeko gogoa nuen”


MAHUKA

erropa denda



Etxebeste, 3
USURBIL
☎ 943 361 106

50. Jakin, nire
KUTIAKIN
JAKINAKIN



Jakin

haizea dakiten orriak

Harpidetu zaitez eta oparia jasoko duzu
deitu: 943 718097
Idatzi: jakin@jakingunea.com
Ikusi: www.jakingunea.com

Harpidetza: 6 zenbaki 45 euro
Oparia: 50 urteolako 202 zenbakiak DVD baten

Alkartasuna
Nekazaritza
Kooperatiba
Elkartea

**Berogailuetarako
gasoil zerbitzua**
prezio onenean



**etxez
etxeko
banaketa**

Eskaerak telefonoz ☎ 943 361 114 edo kooperatiba bertan

Alkartasuna

Herriko kooperatiba elkartea • Nekazaritza • Etxe-erakundeak • Agortu-erakundeak • 48.00000 • 943.361.114 • 1984

Txirrikitutik !!

1 933-1934 urteko haur hauek San Esteban elizaren alboko etxean zegoen eskolako ikasleak dira, guztiak gela berekoak. Argazkia berriz San Estebango Oa base-riaren aurrean aterata dago. Asko dira bertan agertzen diren herritarrek eta beraz ezkerretik eskuinera eta goitik behera hona hemen gaztetxoaren izen-abizenak: Eusebio Aginaga, Jose Izeta, Bixente Muguruza, Julian Zubeldia, Antonio Etxabe, Pedro Añorga, Gertrudis Urkia, Julian Rodriguez, Jose Illarramendi, Fermin Roteta, Julian Begiristain, Marcelino Iturralde, Antonio Altuna, Justo Zinkunegi, Tiburcio Pikabea, Margarita Sagardia, Mercedes Irasuegi, Ignacia Añorga, Rosario Añorga, Maritxu Añorga, Pilar Lakidain, Dolores Rodriguez, Eugenia Kamino, Kandelaria Alargunsoro, Marcelino Illarramendi, Dolores Zubeldia, Maria Zinkunegi, Maria Luisa Alargunsoro, Felisa Aginaga, Josefa Aginaga, Josefa Ignacia Roteta, Maria Rodriguez, Maria Seguro, Antonio Añorga, Pepita Añorga, Margarita Kamino, Isabel Etxabe, Josefina Irasuegi, Elena Arrillaga, Eustakia Kamino, Juanita Altuna, Ignacia Portu, Miguel Muguruza, Juanita Izeta, Anita Alargunsoro, Anita Olea, Jose Olea, Magdalena Muguruza, Jose Maria Roteta, Julita



Argazkilaria: F. Artistica Leganes, 1933-1934, San Esteban
 Jabetza: E. A.

Zinkunegi, Jose Seguro, Jose Maria Kamino, Rafaela Etxabe, Agustin Etxabe, Maria Luisa Etxabe eta Maria Portu.

Zalao Arnaiz Ibarguren
 zalao@usurbil.com

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Borda Berri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 Tlf: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zalao Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.

Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Aritz Gorriti.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonbieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA! IDATZI HORJETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazirako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

ANA URDANGARIN, TANZANIAN **8. OR.**

SANTA ZEZILIREN OMENEZ **10. OR.**

MASAJE TAILERRA HAUR ESKOLAN **11. OR.**

AHOTSAK-EN HITZALDIA SUTEGIN **13. OR.**

DENBORAPASAK **14. OR.**

USURBILDARRAK BEHOBIA-DONOSTIAN **15. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
 Foru Aldundiak
 diruz lagundutako
 aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



NEREA ZINKUNEGI

A sailkapeneko elektrogailuak

Jakingo duzu, noski, egungo teknologia aurrerapenak direla eta A, B, C, D, E, F edo G sailkapeneko garbigailu, hozkailu eta "abargailu" ditugula merkatuan. Bai, Agenda 21a sortu baino lehen frigorifikoa, labadora, sekadora eta "abardora" zirenak, sailkapenik gabekoak.

A sailkapeneko etxetresna elektrikoak omen dira "berdeenak", energia gutxien kontsumitzen dutenak, eta garestienak. B sailkapenekoak energia gehixeago kontsumitzen dute eta merkexegoak dira. Eta horrela G sailkapenekoetara iritsi arte; zentrifugatzan ez dutenak, izozkailuaren atea ireki ezinik geratzen direnak eta Iberdrolarentzako gustukoenak. Nolatan egiten dituzten ere ez da ulertzen, baina tira.

Beno ba, Eusko Jaurlaritzari ze okurrituko eta A sailkapeneko etxetresna elektrikoaren bat aurretik duzunagatik aldatuz gero (erosita, noski) 75eur otako diru laguntza ematea.

Eta niri ze okurrituko eta labadora, barka, garbigailu berria erostea, A sailkapeneko, 75 eur otako diru laguntzarekin nahiko modu onean geratzen dena. Baina, ditzosozko baina, nire labadora, oraingoa, sailkapenik gabekoa, udalaren pisu sozial batean dago.

Labur-labur: duela urte batzuk udalaren pisu sozial batean

pasa nuen bolada luze bat eta bertan sartu nintzenen zeuden "abardora" zaharrak (aurreko maizterrek utzitakoak) izorratu egin ziren.

Berriak erosi nituen frigorifikoa eta labadora. Etxebizitzaz aldatzea tokatu zitzaidan eta "abargailu" guztiak zituela ikusirik, nik erositako "gailuak" udalari saltzeko proposamena bota nion gizarte laguntzaileari, merkexego bazen ere.

Egun batzuetara, gizarte laguntzailearekin elkartu eta politikoei udalaren pisu sozialak hutsik eskaintzeko erabakia hartu zutela adierazi zidan. Udalak ez zituela nire "gailuak" erosiko, alegia, ezta beste batzuk ere. Hurrengo maizterrek (pisu sozialeko maizterrek) gastu ederra zeukaten beraz. Zenbait erabaki ententitzezirik ez dago!

Hala, "gailuak" inon sartzeko tokirik ez eta bertan daude duela urte batzuk, okupek ere etekina atera diete, bejondeiela!

Egun batzuk barru garbigailu berria ekarriko dute nire etxera eta labadora zaharra udaleko pisutik eraman behar dute. Nork irekiko ote digun atea galdetzen diot nire buruari.

Gizarte laguntzaileak eskaria idatziz egiteko eskatu dit eta okasioa aprobetxatu dut. Udaletxeko arduradunen batek irakurriko ote du nire zutabea?

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Jakoba Errekondo - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas

Ika-mika!

Botereak itsututako baten itsukeriak

Azkenaldian Luis Mari Ormaetxeak duen jarrerak auzolotsa eragiten digu. Bere seta soilik Zubietako Herri-Batzarrekikoa zela uste genuen baina mamuak denera zabaldu zaizkio, alkateak biztanleei zor dien errespeta galdu arteraino. Agian, boterea galtzeko beldurraren eragina izango da.

Aginagan ere, KzGunea non kokatu ere, berak edo bere alderdikoek erabaki behar dute. Zergatik? Bada, beraiek agintzen dutelako.

Politikari batzuei ahaztu egiten zaie beren lana zein den; denboraldi batean diru publikoak ahalik eta hoberen kudeatu eta herrigintza lantzea. Botereak itsututa, diru publikoa beraiena balitz bezala erabili nahi dute. Beren inguruko jendeari soka luze utziaz, edozein gaia dela-eta dantza eroso egin dezaten, eta aldiz bere esana betetzen ez duenari, sokatik tiratzen egiten dute ahal leku guztia, ito arte.

Zubietako Herri Batzarrekin berriz ere, jarrera lotsagarria izan du, gezurra behin eta berrito erabiliz. Azkeneko adibidea, Endika Abril errebote finala dela-eta esan dituenak. Zubietako Herri Batzarrekooi finalera joan ez izana leporatu zigun: bada, gu joan ez izanaren arrazoia, pilota federaziotik gonbidapenik jaso ez izana da eta ez besterik;

agian horientzako ere gu txikiak eta garrantzirik gabekoak gara. Errebotea maite dugu eta ahal dugun guztietan ikusten dugu, hala ere, gure presentzia lau haizetara zabaltzeko grinarik gabe.

Erreboteko plazaren inguruan esan zituenen haritik, bada argitu beharrekorik:

1. Egia da 2003. urtean 10 milioi pezetako aurrekontua zegoela erreboteko plaza zaharra konpontzeko eta ez zirela lan horiek egin. Aurreko batzarkideak oharatu ziren aurrekontu hori ez zela nahikoa erreboteko plazak merezi zuen adinako konponketa egiteko. Une hartan frontoi berria eta atzeko lokala eraikitzen ari zirenez, batzarkideek frontoi atzeko lokalean gastatzea nahiago zutela adierazi zieten bi udalei eta udalek horrela onartu zuten.

2. Aurreko batzarkideek hartutako erabakiarekin bat egin zuen egungo Herri Batzarrak. Baina hurrengo urtean bi udalek erreboteko plaza zaharra konpontzeko aurrerapausorik ematen ez zutenez, Herri Batzarrak plazaren alde zerbait egitea erabaki zuen. Oiatzungo erreboteko plaza berria egin zuten arkitekto taldeari eskatu genion gure plaza eraberritzeko aurreproiektua egin zezaten. Erabaki hori "era irregularrean" hartu omen genuen baina udalek ez digute beste aukerarik eman. Zer da irregu-

larra? Akaso irregularra al da geure ekimen propioa izatea eta zubietarrentzat errebote plaza duin bat nahi izatea?

3. 2006ko martxoaren 20an egindako bileran, Odon Elorza jaunak guk aurkeztutako aurreproiektua aurreko egiteko konpromisoa hartu zuen, beti ere Usurbilgo Udalak bere parte jartzen bazuen. Usurbilgo alkatearen jarrera, berriz, isiltzearena izan zen. Sarritan erakusten du jarrera hori bera; bere gustukoa ez den zer zer aurkezten diogunean isildu egiten da eta gero berak nahi duena egiten du.

4. 2006ko irailaren 20an egindako bileran, Donostiako Udalaren ordezkariak berrito ere Odonen konpromisoa mantendu zuten, baldintza berarekin: Usurbilgo Udalak bereari aurre egitea. Hori dena aktetan idatzia dago.

Ez dugu uste plazarentzat egokiena denik 12.000 euroko txapuz bat egitea. Hori diru publikoa xahutzea dela iruditzen zaigu; izan ere, maila horretako konponketak, gainera egindako itxuraldaketa baizik ez luke ekarriko, epe laburrera berrito dena txikitzeko. Baina horrelako gauzak normalak omen dira alkate honentzako.

Zubietako Herri-Batzarra

Ika-mika !

Inoiz ez da berandu

Usurbilgo herriak futbol zelaia mundiala izango du, bai horixe! Instalazio modernu eta funtzionalaz gain punta-puntako belar motaz hornitua gainera. Hau diot zeren, ez badakizue ere, Harane eraberritua, futbol zelaia dotorea inguruko herrien enbidia izango baita.

Jakin badakizue guztiz osatua ez dagoela, aldagelak behin-behinekoak direla, atzerapen handia daramagula... Hau da, dena gaizki egiten dugula antza. Informazio hau behin eta berriz irakurtzeko aukera izan baitugu egunkarietan zein herri aldizkarietan Josu Aranberrik idatzirikoa artikuluetan.

Argitaratu diren artikulua hauen inguruan hainbat gogoeta egin nahi nituzke ordea. Esan beharrik ez dago obra asko atzeratu zaigula, begibistakoa da, beraz, proiektu honen arduradun politikoa naizenaren

aldetik barkamena eskatu nahi diot Usurbilgo herriari eta bereziki futbol talderari. Egin ditudan akats eta hutsegiteak onartzeko ez dut inoiz arazorik izan.

Bestalde, gisa honetako obretan zoritxarrez ohikoak bilakatzen diren atzerapenez gain, obra gauzatuta ikusi nahi ez zuten interes partidista eta era guztietako oztopoei egin behar izan diogu aurre. Hainbat prozedura berriro errepikatu behar honek ondorio zuzena izan du; obraren atzerapena hain zuzen. Eta guzti hau Josuk badaki, aipatu proiektuari jarraipen zuzena egiteko aukera izan baitu politiko zein langileek luzaturiko informazioari esker. Beraz, Josu adiskide hori, kazetari baten helburua herritar guztiak ahalik eta ondoen informatzeari bada ze hobeto egia guztia kontatzeari baino.

Bukatzen joateko eta konklusio modura zera aipatu nahiko nuke, gozatzeko moduko futbol zelaia izango duela Usurbil Futbol Taldeak. Entrenatzeko eta partiduak jokatzeko egin dituzten ahalegin guztien jakitun naiz, beraz doakizue nire barkamenik benetakoena eta hemendik aurrera ez dago aitzakiarik partiduak irabazteko.

Dena den, gauza batek asko tristetzen nau; proiektu bat herriarentzat ona bada guztiontzat izango da ona ezta? Edo... proiektu bat, egiten duenaren arabera bihurtzen al da egoki edo desegokia? Ez nuke hala denik pentsatu nahi, benetan.

Ibon Beristain

Kirol Patronatuko lehendakaria

Ika-mika !

Futbol zelaian argirik gabe jarraitzen dute

Usurbil Futbol Taldeak Haranen entrenatu ezinik jarraitzen duela baieztatu dezaket. Ez dago argirik. Usurbilgo Eusko Alkartasunako ordezkariak diren L.M. Ormaetxea eta Ibon Beristainek kirol talde honi azaroaren 10erako Haranen dena prest egongo zela esan zela baieztatu dezaket. Ez dago argirik. Ni, neuk, Josu Aranberrik, kazetaria eta Usurbil F.T.ko kide den honek, ziurta diezazueket hori, baita jokalaria eta entrenatzaileek ere. Baina galdetu ea zergatik ezin duten, belar artifiziala duela hilabete geroztik jarrita egonda, bertan entrenatu. Ez dakite, ez dute ulertzen... ez dago argirik.

“Fokoak aspalditik jarrita daude ta, nola egon gaitezke argirik gabe?” galdetu izan dute askotan. Horixe da “NOAUA!ko artikulista izatearen abantailak erabiliaz” idatzi nuen artikuluan Usurbil Futbol Taldeko kideek egiten zuten galdera nagusia. Herriari, futbol jokalariei, entrenatzaileei, zaleei azalpen bat ematea eskatzen zuten, egia esatea. Ez zuten beste azalpenik eskatzen. 254. alean nik idazten dudana kirol orrialdean tartetxo bat eman nion Usurbil Futbol Taldeari zer egoeratan zeuden azaltzeko. Hauek ez ote dute bada horretarako

eskubiderik?

Kazetari naizen aldetik, Harane futbol zelaiko proiektuaren inguruko informazioa lasai eman izan dut. NOAUA!n ez agian, baina bai beste komunikabide batean. Bertan jaso izan dira izan diren oztopoak, atzerapenak... Nik baino gehiago futbolaz eta futbol zelaiaz idatzi duenik! Hala ere, artikulua hartako gaia ez zen hura. Haraneko lan guztiak amaitu ondoren inauguratzeko prest dagoenean, kapituluka argitaratuko ditugu edizio berezi batean pasa diren guztiak, ados?

Ez dut inon ezkutatu beharrik. Luis Mari Ormaetxea EAKo alkategaiarekin bilera bat izan nuen duela ia 4 urte, bai, aitortzen dut. Usurbil F.T.ko zuzendaritza batzordeko kide sartu ginenetik herriko ume eta gazteek futboleko jokatzeko aukera izateko Haranen belar artifiziala jartzea beharrezkoa zela argi izan dugu. Guk zuei, garai hartan udalean agintean zeudenei, eta agian beste talderen bati ere aurrez aipaturikoa eskatuko genien. Eskatzea libre da, ematea ere bai. Alde horretatik, mila esker.

Ez dut informazioa ezkutatze beharrik. Nire aldetik informaziorik ezkutatu dudarik ez dut uste. Eta hala balitz, informazio

hori ez kaleratzeko zeri begira egon zarete zuek? Nahi duzuenean azkar idazten duzue ba?

Klubeko futbolari eta futbol zaleei informazioa ezkutatu izan diedanaren zalantza ere baduzue, antza. Ze informazio? Foru aldunditik 400.000 euro lortu izana? (a ze poza hori jakin genuenean), 2005eko aurrekontuak onartzeko arazoan ondorioz atzeratu zela lanen hasiera zuen artean konponetzen ez zinetelako?, arkitektoak petroleoaren prezio igoera kontuan hartu ez eta adjudikaziora enpresarik aurkeztu ez zenekoa?... Agertu Harane eraberritua (18.30etatik aurrera ez, argirik ez dago eta), hitz egin beraiekin, galdetu galdetu beharrekoak, eta bide batez, azaldu zuek zergatik egon diren urtebete baino gehiago Haranen jokatu gabe eta entrenatu gabe ere bai beste batzuk.

Ah! Ia ahaztu zitzaidan. Alkatea eta Kirol Patronatuko kidearekin egindako bileretaz idatziko dut hurrengo batean, orrialde osoa beharko nuke eta!

Josu Aranberri

(Kazetaria, Usurbil FT zuzendaritzako kide eta nesken entrenatzailea). Azaroaren 13an idatzia

TXOKOALDE

KOLDO HUEGUN

Ehiza ere ez da lehen bezala



Kronika idatzi behar nuela gogorarazi zidatenean, ondoan nuen batek honela esan zidan: "Hi, orain udazkena duk eta garai hontan ehizataz idaztea tokatzen duk". Hari kasu eginaz nator.

Gure auzoan dakizuenez, ia ahaztuta ditugu tortola garaiak, baita arbi tarteko istingor pizkorrak eta Europako goikaldetik datozen ahate eta zertzetak. Orain usoak nola pasatzen diren ikusi, bertako zozo eta birigarroei iheserako trebezia areagotu eta oilagor preziatua noiz iritxiko den zain egotea besterik ez zaigu gelditzen. Ba aurrenekoak, usoak alegia, ia konturatu gabe pasa zaizkigu, asteazken eta ostegun batean, hego-haize zakar batek lagunduta eta kitto! "Oraindik ez dituk denak pasa... Kolpe handia jotzeko zioke...", urtero bezala.

Birigarroak eta zozoak berriz nahiko osasun onean dauzkagu, gatzetxeko kuadrila eta Itzautarrak kenduta, inork gutxik ematen die gerra eta udazken epelak lagunduta gozo dabilta.

Eta gogorra ez den ollua berriz are eta gozoago Europako goikalden oraindik. Pasa den larunbatean bat bota banuen ere, oraindik banaka batzuk besterik ez direla iritsi ematen du.

A!! eta gaiaz aldatuz, badugu bukatzen erraza ez den betelana. Badakizue zein ezta? Hala ere badirudi bukaera bistan duela eta urtetan ikusi dugun paisaia zatar hori amaitzeaz dagoela. Denborak esango digu alfonbra azpian gorde dugun zakar horrek zer ondorio dakartzan.

KALEBERRI

IRATI PORTU

Txiriboga



Duela egun gutxi Ecuadorri buruzko erakusketak bat ikusten izan naiz. Bertan mapa bat ere bazen eta hari begira jarri ginen laguna eta biok. Halako batean esan zidan: Non dago Chiriboga?

Ba al zenekiten Chiriboga Ecuadorren dagoela? Nik ez; aurkitu dudana informazioa duela 5 urtekoa da, baina interesgarria da.

Quitotik pare bat kilometrotara dagoen herrialdetxo bat dugu. Garai batean, duela 80 urte inguru, oso herri garrantzitsua izan zen, batez ere telefonoa zuelako. Geroago orde, bideak eta komunikazio sarea garatzen joan ahala inguruko herriek garrantzia hartu zuten Chiriboga zeharo baztertuz. Eskolan irakasle bakarra 6tik 12 urte arteko haur denekin, medikurik ez... egoera ez zen xamurra. Ekonomiarik dagokionez, ez zegoen garapen handiegirik eta zuhaitzak talatzea zen beraien iturri nagusietakoa.

Duela 8 urte, "Proyecto Chiriboga" sortu zen eta honek bertako hezkuntza eta osasuna sustatzeaz gain basoen errestaurazioa ere bultzatu zuen. Gaur egun ez dakit zertan den proiektu hau baina lan polita egin zutela pentsatzen dut. Txiribogan hartzen dugun hurrengo tragoa han lanean aritu zirenen omenean!



KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

Ernietik gogoetetan

Duela oso egun gutxi goizean esnatu, leihoa ireki eta halako eguraldia ikusi nuenean, urdin-urdina, frexkoa eta garbia, mendiko boteti hautsa kendu eta Erniora joatea otu zitzaidan. Mendi magalean gora abiatu orduko, neronekin eta ingurunearekin elkarrizketan hasi nintzen; zeaitik ez ote naun gehiagotan etortzen dena utzita? ... Sarriyo etorriko baniñunake, ez niñake ba halako arnas-hesturik izango, eh! ... Tira, gutxitan bada ere etortze haizenanean gozatzen jakitea ez dun txarra! ... Bai bai, hala beharko din... Horretan, tipi-tapa, aupa kaixo, aio, gero arte eta antzerakoak tartean esanaz parean pasatzen zirenei, gailurrarekin egin nuen topo.

Gailurra orraztuz pasatzen zen haizeak, inguruan harrapatzen zuen guztia eteten zuen; hotz egiten zuen. Gorakoan gerrian loturik eraman nuen jertsea jantzi, ur-botila eskuan hartu eta Ernioko gurutzaren oinean eseri nintzen begiz-aurrez nuenaz gozatzeko asmoz; Andatza parez-pare, Jaizkibel hurrunago, Orio, Donostia, Aiako Harriak...

Poztu egin nintzen egun horretan, eta une horretan han egoteaz! Eta, poztu egin nintzen esaten dut, ez baitakit hurrengoan aurrez-aurre topatuko dudana ikuspegia berdina izango ote den; errepide berriren bat egongo da agian mendiren bat zeharkatzen, errauskailu baten keak giroa lainotzen, zutabe eolikoren batzuk agian beste nonbait txoriak uxatzen... Kontuak-kontu, parajea ezberdina izango denik inork ezin uka.



ATXEGALDE

AINARA BORDAGARAI

Gabonak ere badatoz

Kaixo herritarrok! Usurbilgo auzo txiki honetan ez da nobedade gehiegi egoten baina beti berriak suertatzen dira. Jada udazkena amaitzen ari da eta neguan ibili beharreko arropak oraindik armairuan gordeak ditugu.

Edonor gaixotzeko eguraldia egin digu urtaron honetan, batetik hego haizea eta bestetik haize hotzak. Negua zetorrelakoan geunden guztiak baina usteak erdi ustel izaten omen dira.

Gabonak ere ohartu gabe berriz ere gainean ditugu eta berriro ere pinu, argi eta apaingarriz betekoz dugu gure herri txiki hau. Baina, zergatik amaitzen dira argiak kaxkotik pixka batt urrundu ezkerok? Atxegalde behintzat erabat triste sumatzen da gabonetan. Ze polita geratuko litzatekeen argitxo batzuk gure auzoko zuhaitzetan zintzilikaturik? Agian ez da denen gustukoa baina alaitasun tanta batek ez dio inori kalte egiten.

Honekin batera garai honetan gogoratzen gara gehien behar gaituztenentzat, baina honek ez luke horrela izan beharko.

Urte osoan izaten baititugu gure artean, beraz, jar dezagun guztiok hondar ale bat urte guztian zehar bizi hobe bat izan-go duten itxaropena galtzen ez duten horientzat.



SANTUENA

PAKO AGUDO

Hasi da sukaldaritza ikastaroa



Azkenean hasi zaigu sukaldaritza ikastaroa. Gure auzoa nahiz eta txikia izan aukera handiak ematen dizkigu. Ibai-Ondo elkarteari esker leku aproposa topatu dute auzoan. Bertan halako ikastaro baliagarria egiteko aukera galtzea batzuen-tzako penagarria izango da baina zer egingo diogu ba. Ikastaroa gainera garai aiposean dator.

Konturatzerako gabonetan murgilduta izango gara eta aukera ederra izango da ikasleentzat ikasitako guztia praktikan jartzeko. Gehienok daramagun bizitza ero honetan ez litzaiguke gaizki etorriko honelako ikastaro praktikoak, agian gauzak nola egiten diren jakinda gehiagotan egingo genituzke.

Bestalde, egia da azken garaie-tan auzoan konponketa ugari egin direla baina, ezin dugu ahaztu egiteko gelditzen diren gauzetaz. Adibidez, gure eskola izan zena-ren parke txikia penagarri eta arriskutsu gelditu zaigu. Egia da eskubaloizelaia aldamenean dagoena oso txukun dagoela orain baino, bere anaia txikiak ere berritze lanak esker onez hartuko lituzke.



URDAIAGA

ALAZNE BEGIRISTAIN

San Martin



Azaroan murgildurik gauden arren, kostatzen ari zaio hotzari muturra sartzea. Goizetan eta gauean bai, freskatzen du baina egunean zehar izaten dugun beroa ez da parte honekoa. Klima aldatzen ari omen da, negutegi efektua bizitzen ari omen gara, ... gustatzen ez zaizkidan kontuak denak.

Baina ezin dugu ahaztu San Martin inguruan izan ohi dugun "udartxo" ere, nahiz eta aurten udararen luzapena dirudien arren...



Larunbatean izan zen San Martin eguna. Orain urte batzuk txerria hiltzen hasten zen eguna izan ohi zen. Festa moduan ospatzen zuten. Etxeko txerri bat edo gehiago hiltzen ziren, etxean bizi zen jende kopuruaren arabera edo baita zuten diruaren arabera ere eta urte osorako janariz

hornitzea zen honen helburua. Gizonezkoek txerriak hiltzen zituzten eta emakuzmekoek odolkiak, txorizoak, ... prestatu.

Gauzak asko aldatu dira bai! Guk dendara joan eta han erosten ditugu gauzik gehienak. Baina ez da gaizki etortzen noizean behin atzera begiratzea...

AGINAGA

M^ÁNGELES ARRUTI

Agur Joxepa Iñaxi

San Estebango Urdaia (Urda) baserrian Sjaioa, Agiñako Etxebestera ezkondua eta geroztik majina bat lan egindakoa. Lehenbizi Etxebeste jatetxeko sukaldean aritu zen. Etxebesteko sukaldeak hitz egiten jakingo balu majina bat kontu esango litziguake.



Hainbeste urteetan jan gozo ugari jarri eta eman dituzu. Geroago bi iloben artean sukalde hartu eta zu baratzen aritu zara. Etxeko barazki guztiak zuk jarritakoak izan dira urteetan.

Horretaz gain, beste afizio bat ere izan duzu: loreak. Zenbat lirio, gladiolo, parrikulata, kalak, larrosak, krisante-moak... Aginagako eliza beti dotore apainduta izaten zenuen. Ederki nabarmendu genuen zuk utzi zenuenean. Jaunartze egunetan jartzen zenituen lirio zuriak gogoan ditut; eta ez daukat ahazteko Anek jaunartu zuen egun hartan nola jarri zenituen 100 lirio aldarean, dotore benetan. Ama Doloretakoa jazten ere artista izan zara, bai baitu bere zailtasuna ondo jazteak. Koruko partaide ere izan zara.

Denak aipatzeko toki gutxiegiz daukat baina lerro hauen bitartez eta eliza mailan ibiltzen garen guztien partez "mila esker" eta joan zaren toki berri horretatik bidali indarra gure-gana zuk utzitako lan horri aurrera eramateko.

Beti arte Joxepa Iñaxi eta ohore!

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Ez da errauskailua

Ez da errauskailua -incineradora, gaztela-niaz- eta bere kokapena loa galarazten didan kontua. Ez dut gogoko, besterik gabe. Bada, orde, inguruan bizitza aldapagora bihurtzen didanik. Bizitokia lakarra, hertsia eta gozagaizta egiten didanik. Horietako bat baino ez da errauskailua.



Ez, ez da errauste planta -Zubietan pasioan edo plazan eserita-jira eta bira burua nekatuko didan kontua; baditut beste batzuk. Bakoitza bere zoroak bizi du.

Ez errauskailua, ez bere inguruan esan eta esaten diren sinplekeriak kezkatzen naute bizi, batez ere politikoen ahotik ateratzen direnak. Izan ere, interes gehiegiz ezkutatu behar izaten dituzte lerro sinple batzuetan.

Kontua da gauza asko adierazten duela egiteko moduak: errauskailua nola ezarri duten, koka-lekua nola aukeratu duten, eta zer lotura duen errauskailuaren gaiak beste batzuekin: etxe berriak egiteko asmoekin, kartzelarekin, kuartelekin... Honek guztiak bai, honek kezkatu egiten nau, tarteka nekatu egiten dit burua, uste baitut aldaketa gehienak gure kalterako izango direla.

Horregatik, besterik ez bada, larunbat goiz honetan hurbilduko naiz Zubietako plazara, erraustegiaren aurkako batzordeak deitu duen prentsaurrekora, Zubieta ezin dela Donostialdeko zakarrentzia izan ozen eta garbi adieraztera.

Ana Urdangarin: "Kristoren abentura izan da"

Ana Urdangarin usurbildarra Tanzaniatik etorri berria da. Ia hilabete igaro du bertan. Animalen erreinua safariz zeharkatu du, hondartza eta mendietan lasaitasuna aurkitu, hainbat jende ezagutu... Berak dioen bezala, "abenturaz abentura" ibili da.

NOAUA! Zergatik Tanzania?

Ana Urdangarin. Beti izan dut Afrika beltza ezagutzeko gogo. Lehen, Egipton izan nintzen baina herrialde horrek beheko aldeko zonaldearekin ez du zerikusirik. Egia esan, safari bat egin nahi nuen. Safaria entzutean Kenia etortzen da gogorra. Nik, ordea, Tanzania aukeratu nuen. Beti kuriositatea izan dut.

N. Kontraste handiko herrialdea da ezta?

A. U. Dena duzu, mendia, hondartza, animaliak bere bizitoki naturalean... Herri handi batetik, merkatal mundutik, jendea kalean bizi den egunerokotasun horretatik, mendi aldera autobusa hartu eta panorama zeharo aldatzen da; herrixka txikiak ikusten dituzu, pobrezia denbora guztian presente... Eta jendearen izaera ere asko aldatzen da. Herrixka txikiak biztanleak turistekin gehiago harritzen dira. Zuri begira daude. Bestalde, tximuak saltoka dabilta zure buru gainetik, iguanak bideetan... Natura bizi bizia da bertan.

N. 25 egun igaro dituzu. Nondik ibili zara?

A. U. Dar Es Salaamera iritsi nintzen. Bertan kokatzeko egun batzuk egin nituen. Gero, Lusoto mendi ingurura jo nuen. Lau bat egun igaro nituen, mendian lasai. Hortik hondartza aldera jaitsi ginen. Esklaboek egindako bidea ezagutu nuen. Jarraian, Dar Es Salaamera itzuli nintzen berriro eta handik, ontzi batean Zanzibarrera. Oso polita zen. Bakarrik joan naizenez, jendea beti zure gainean dago. Une batzuetan zaila zen ondo eramatea. Horregatik, lasaitzeko Ekialdeko Hondartzetara joan nintzen. Paradisua zen.



EKIALDEKO HONDARTZETAN ZELA, BIZIKLETAKO GURPIL BAT ZULATU ZITZAION. HAINBAT HERRITAR HURBILDU ZIREN LAGUNTZERA, TARTEAN, IRUDIAN AGERI DEN HAURRA.

N. Safaria egin zenuen?

A. U. Arusha aldetik abiatuta. Bost eguneko safari bat antolatzen da. Negoziatu, jendea ezagutu eta safaria antolatzeko garaiz joan behar izaten da. Safaria ez zuen ordura arte ezagututakoarekin zerikusirik. Animaliak beren bizileku naturalean daude. Haien lekua inbaditzen ari ginen, baina animaliak mugitu ere ez ziren egiten. Haien ehizean kontzentratuta, haien bizimodua egiten eta zu haientzat ez zara existitzen. Animalien lurraldean zaude. Dokumentaletan erakusten dena ikusi dut.

ANA URDANGARIN

"Miseria handia da,
oso herrialde pobrea da.
Azpiegitura aldetik,
oso gaizki dago Tanzania"

N. Denboraren zentzua ere zeharo galduta izango zenuen?

A. U. Esnatzen zarenean, gosalduta eta hor hasten da eguna. Ez dakizu non amaituko duzun. Denbora oso azkar

pasatzen da, baina horren zentzua galdu egiten duzu. Hemendik ateratzen zaren unetik dena ahazten duzu. Egunerokotasunik ez dago; une oro zerbait gertatzen da. Kalean zaude unean, norbait ezagutu eta bere etxera eramaten zaitu. Bere inguruko jendea ezagutzen duzu. Abenturaz abentura ibili naiz. Kristoren abentura izan da.

N. Bertako ohitura eta bizimoduari dagokionean, zerk harritu zaitu gehien?

A. U. Emakumeen egoerak. Gizonak turistekin negozioetan ibiltzen dira. Denbora guztian kalean. Emakumeak, ordea, ez. Bertan daudenak saltzaileak dira edo haien haurrekin dabilta. Harrigarria da. Herrixketan, lurra lantzen dutenak emakumeak dira. Haurrak haiei lotuta dituztela lan egiten dute. Bestalde, aste horietan Ramadana egiten ari ziren. Egunez, bereziki Zanzibarren, jatetxeak zabalik aurkitu edo alkohola edatea ezinezkoa zen.

N. Hasieratik herrialdeari buruz zenuen irudia, hara joanda aldatu al da? Zertan?

A. U. Hara joan baino lehen, irakurtzen zoaz, dokumental eta filmak ikus-

ten... Han aurki dezakezunaz jabetuta zoaz. Miseria handia da, oso herrialde pobrea da. Azpiegitura aldetik, oso gaizki dago. Oraindik egiteko lan handia dago. Baina bertara joanda, jendea ikusi dudana baino okerrago aurkitzea espero nuen; gosete gehiago, jendea gosez hiltzen... Gehienek arroza edo fruituekin elikatzen dira. Alde horretatik poza hartu dut. Bertara boluntario bezala hilabete batzuetara joateko gogoz itzuli naiz. Hori ere buruan bueltaka darabilkit. Pena da esatea, baina norberak benetan duena balioesteko horrelako lekuetara joan behar izaten da.

N. Ez da urrutira joan zaren lehen aldia?

A. U. Egipton egona naiz. Hegoaldearekin zerikusirik ez du. Hego Ameriketako leku dezentetan ibili naiz; Perun, Mexikon, Brasilen, Kuban... Oso eskuzabal hartzen zaituzte. Baita Asia aldean ere; Tailandian, Indian. Leku horiek guztiak azken sei urteetan ezagutu ditut. Bidaiatzek geroz eta gehiago erakartzen nau.


N. Bidaia zale amorratua zara. Hurrengoan nora joango zara?

A. U. Unean ditudan gogoak betetzen saiatzen naiz. Berririo Afrikara joango nintzateke; Ugandara, Ruandara, Mozambikera... Inguru horiek gehiago ezagutzea nahiko nuke. Nire ametsa, urte pare bat hartu eta Hego Amerika, Ozeania, Afrika... bisitatzea litzateke. Nire planetan dago.

ARITZ GORRITI



TANZANIAKO PARAJE EZBERDINAK
BISITATU DITU ANAK.



“Bakarrik bidaiatzek, une kritikoetan, zeure burua hobeto ezagutzen laguntzen dizu”

Bakarrik joan da Tanzaniara. Eta ez da lehen aldia. Modu horretan bidaiatzek norberarentzat irakasgai garrantzitsua da, Anaren ustetan.

N. Ondo moldatu al zara?

A. U. Une batzuetan emakumea izan eta bakarrik bidaiatzek zer pentsatua ematen du. Baina une batean ere ez dut beldurra sentitu. Tanzania bezalako lurraldean arazorik ez dagoe la uste dut. Alde horretatik, asko ikasi dut. Segurtasun handia ematen du. Herrialde batera bakarrik joan eta zure kasa ibiltzeko gaitasuna duzu. Hori niretzat pertsonalki oso atsegingarria izan da. Bestalde, hizkuntza eta kultura zeharo ezberdinak dira. Tanzanian, ingelesarekin nahiko ondo moldatu naiz, baina oraindik egur handia eman behar diot. Leku batzuetan ingelesarekin ezin ulertu ibili nintzen. Bakarrik bidaiatzek une kritiko horietan zeure burua ezagutzen laguntzen dizu.

N. Ez da modu horretan bidaiatu duzun lehen aldia?

A. U. Tanzaniakoa, bakarrik egin dudana hirugarren bidaia da. Perura joan nintzen lehen aldiz. Apustu bat izan zen. Neure buruari atzerrira bakarrik joateko gaitasuna ote nuen eraku-

tsi nahi nion neure buruari. Gero, Italia aldean ere egona naiz.

N. Bakarrik bidaiatzeko premisak zeintzuk dira?

A. U. Mentalizatzea. Norbere buruagan segurtasuna eta ausardia puntua izatea. Norbere buruari, egoera horrekin ahal duela eta aurrera egin dezakeela uste izatea. Hori lortzea aurrerapauso handia da. Batzuek beldur gehiago izan dezakete, besteei gutxiago. Baina denok uneraren batean planteatzen duguna egiteko gai garela uste dut. Ziur. Norberak zerbait planteatzen duenean, aurrera egin dezala. Jendearekin, bi pertsonekin, taldean bidaiatu dut. Baina bakarrik joateak ez du parekorik. Niretzat kristoren esperientzia izan da. Ez da erraza, dena baita hain ezberdina.

N. Hala ere, ibilbidean jende asko ezagutuko zenuen?

A. U. Jende asko. Hemengoak, Tanzaniako kaleetan ezagututakoa, haien etxetara familiekin egotera eramaten zaituztenak. Hemen, turista bat ikusita ez diozu horrelako harrera egiten. Oso ondo zaindu eta sentiarazi naute. Oso sentsazio onarekin itzuli naiz.

Azaroaren 18an, erraustegien kontrako elkarretaratzea Zubietan

Larunbat honetan, azaroak 18, Zubietako plazan elkartzeko deialdia egin da. Goizeko 11:00etan hasiko da elkarretaratzea eta amaieran komunikatu bat irakurriko da. Era honetan, erraustegien aurkako oihua zabaltu eta hiri hondakinak tratatzeko beste alternatiba batzuk badirela aldarrikatu nahi da.

Zubietako bizilagunen ekimena izan da. Elkarretaratzea iragartzeko egindako deialdiak dienez, “diputazioak zaborren gaiari konponbide bat bilatu ordez, errauskailua inposatu nahi digu. Hamaika kokagunetan dantzan ibili ondoren, orain arteko azken proposamena Zubietakoa da, beste tokietakoa herri mobilizazioak atzera botatzea lortu ondoren. Baina arazoa ez da kokalekua, baizik errausketa sistema

bera. Zaborraren auzia konpondu ordez, arazo gehiago sortzen ditu: emisio pozoitsuak, hondakinak, izugarriko garraioa...”. Honen aurrean alternatibak badaudela diote deitzaileek. Atez-ateko bilketan oinarritutakoa, esate baterako. “Honen aurrean eta zaborren gestio eraginkor eta osasuntsuago baten alde, eta Zubietan ere erraustegia jar ez dezaten lortzeko, hainbat zubietarrok plataforma bat osatu dugu”, dio bizilagunen agiriak.

Zubietarren hitza entzun eta onar dezatela eskatzen dute eta errausketaren aurkako banderola erosi eta balikoietan jartzeko deialdia egin dute. Alternatiben alde gauden guztiak gonbidatu nahi dituzte larunbat honetan Zubietako plazan egingo den ekitaldira. Goizeko 11:00etan hasiko da elkarretaratzea.

Xabier Amuriza Sutegin

7⁰ lagun bildu zituen “50 urte” bertso emanaldiak. Xabier Amurizak azken mende erdiaren ibilbide historikoa errebasatu zuen, bertso eta kantu bidez. Mixel Ducau izan zuen bide-lagun. Eskertzekoa izan zen Zumarte Musika Eskolak eskaini zuen laguntza teknikoa. Amurizaren ekitaldia Puntapax haurtzaindegiko guraso ohiek antolatu zuten eta NOAUA! Kultur Hamabostaldian jasoa izan zen.



AMURIZAREN SAIOAREKIN AMAITU ZEN NOAUA! KULTUR HAMABOSTALDIA.

Santa Zeziliren omenezko kontzertua

Datorren asteazkena, azaroak 22, musikariek ospakizun eguna dute; Santa Zezili eguna. Egun berezia izan arren, urtean zehar musikariek alor honi eskaintzen dizkieten orduen erakusleho bihurtuko da Sutegi. Zumarte Musika Eskolakoek kontzertua eskainiko dute arratsaldeko 19:00etatik aurrera auditorioan.

Jostunek, herrietako jaiek... Denek ospakizun jaietarako egun bat izendatua dute. Baita musikariek ere. Azaroaren 22an, Santa Zezili egunean. Egun berezi horretan, urtean zehar musikagintzan jarduten dutenek egindako lana erakusteko baliatzen dute eguna. Horren haritik, Zumarte Musika Eskolakoek kontzertua eskainiko dute Sutegiko auditorioan arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

Gitarra, tronpeta, pianoa, saxofoia, txistua, gitarra eta trikitixa doinuak.

Bertako zein kanpoko abestiak taularatuko dituzte aipatutako musika instrumentuak baliatuta. Euskal Herriko hainbat musika taldeek ezagun egin dituzten abestiak entzun ahal izango dira. Mikel Urdangarinen “Non gertzen den denbora” edota Kepa Junkeraren “Bizi ganoraz” abestia joko dituzte trikitilariek.

Araitx Larreak zuzenduta, instrumentu ezberdinez osatutako talde baten eskutik, besteak beste, Victor Zubizarretaren “Ama begira zazu” abestia entzun ahal da.

Txistulari taldeari dagokionean, Iruretagoiena eta Ansorenak plazaratutako musika eskainiko dute.

Gitar joleena ere izango da Sutegiko emanaldia. Mikel Laboaren “Hegoak ebaki banizkion” kanta, gitarra elektrikoan trebatuak direnek eskainiko dituzten abestiekin batera entzungo baita. Hori guztia eta gehiago Zumartekoen emanaldian.



GITAR JOLEEK ZEIN TRIKITILARIEK PIEZA EDERRAK JOKO DITUZTE SUTEGIN AZAROAREN 22AN.

Masaje tailerra eta elikadurari buruzko hitzaldia antolatu ditu Haur Eskolako guraso elkarteak

Kalezarren dagoen Haur Eskola ekimen handikoa da. Ohiko zerbitzuak eskaintzeaz gain, heziketa arloan hobetzeko ahaleginak etengabeak dira. Azaroaren 20an, haur zein gurasoei zuzendutako masaje tailerra hasiko da. Azaroaren 29rako, aldiz, elikadura ekologikoari buruzko hitzaldia antolatu dute.

Azaroaren 20an hasiko da masaje tailerra. 0-3 adin tarteko haur eta gurasoentzat, oso egokia. Jose Ramon Maudit psikologo eta gortutx terapeutak eskainiko du masaje tailerra eta hiru egunez luzatuko da. Lehen saioa, azaroaren 20an. Bigarrena, azaroaren 27an; hirugarrena eta azkena, abenduaren 4an. Euskaraz zein gazteleraz eskainiko du tailerra eta matrikularen prezioa 10 eurokoa da. Haurrei maitasuna ahalbidertzeko masaje tailer honen bidez, haur eta gurasoen arteko harremanak sustatu nahi dira. Informazio gehiago, Haur Eskolan bertan (943 374 061).

Elikadura ekologikoari buruzko hitzaldia Sutejin

Elikadura ekologikoari buruzko hitzaldia, ordea, Elena Corralesek eskainiko du. Zientzia biologikoan lizentziatua eta osasun zein nutrizio energetikoan aditua da. Hitzaldia azaroaren 29an izango da, arratsalde-

ko 18:30ean Sutejin, eta gazteleraz eskainia izango da. Sarrera, doan. Hitzaldi honetan, gure seme-alabek zer eta zenbat jan behar dutenaren inguruko urratsak emango dira.

Eskolan, etxean bezala

Urte hasieran, Haur Eskolako gurasoak eta hezitzaileak egoera berrira egokitzeko proiektu aitzindaria jarri zuten martxan: gurasoak haurdunaldiaren azken hilabeteetan hasten dira haur eskolara joaten.

HAUR ESKOLA, AITZINDARIA

“Gurasoak haurdunaldiaren azken hilabeteetan hasten dira Haur Eskolara joaten”

Fase horretan gurasoek elkar ezagutzen dute, hezitzailea eta gurasoen arteko harremana eta konplizitatea sortzen da, eta, gurasoei haur eskolaren partaide sentiarazten zaie.

Proiektuaren aurkezpenean Jose Ramon Maduitek adierazi zuenez, «gerora jaioko den haur horrek ama eta hezitzailearen arteko elkarriketak entzuten ditu, hizkuntzaren modulazioa edo tonua barneratuz. Jaiotzen denean berarentzat ez da ingurune arrotza izango haur eskolako gela».

Haurarentzat bezala, gurasoentzat ere garrantzitsua da ekimen hau. Jose Ramon Mauditen arabera, garrantzi-



0 ETA 3 ADIN TARTEKO HAUR ETA GURASOEI BEGIRA ANTOLATU DA MASAJE TAILERRA.

tsuena da amek hausturaren sentsazioz ez izatea: «Orain arte etxea eta haur eskola bi instituzio izan dira eta ez da loturarik egon. Era honetara, gurasoek haur eskola beste era batera ikusten dute».

Masaje tailerra

0-3 adin tarteko haur eta gurasoentzat.

Hizlaria: Jose Ramon Maudit psikologoa.

Noiz: Azaroak 20, azaroak 27, abenduak 4. Hiru saioak Haur Eskolako psikomotrizitate gelan, 16:30etik aurrera.

Matrikula: 10 euro.

Elikadura hizpide

Elikadura ekologikoa, 0-3 haurrentzat.

Hizlaria: Elena Corrales.

Noiz: Azaroak 29 asteazkena, 18:30ean. Sutejin.

Sarrera: doan.

Antolatzailea: Haur Eskola (943 374 061)

txirriSira
KONTSEJU ZAHARRA TS
943 300 400
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Okindegia - Gozotegia
LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

“Gaztetasunak erabiltzen nau” antzerki-saioa Sutegin

Euskarazko antzerki talde bat osatzeko gogoz Amikuzeko gazte talde bat bildu zen igaroen urteko udaberrian. Lehen bilkuren ostetik, Kitzikazan/k taldearen lehen entsegu saioak etorri ziren eta geroago, Mattin Irigoienek testua baliatu zuten. Lan horren emaitza “Gaztetasunak erabiltzen nau” antzezlanak du. Nafartarrak Kultur Taldeak Sutegin antolatutako emanaldia oholatza gainean ikusgai izango da, azaroaren 18an, gaueko 22:00etatik aurrera.

Zoriontasuna eta lasaitasuna darion gazte itxura duen herritar talde bat antzezlan bat prestatzen dabil. Une ezin hobeez eta amodio istorio bat ere biziko dute haien artean. Drama batek kolpatuko du hori guztia. Nola aurre egingo diote egoera horri, herriko agintari eta gazte taldeak? Istorio korapilatsu horrek zer nolako amaiera izango du?

Azaroaren 18an Sutegin taularatutako den “Gaztetasunak erabiltzen nau” Nafartarrak Kultur Taldeak antolatutako emanaldia ildoan da. Amikuzeko (Behe Nafarroa) Kitzikazan/k gazte taldea aktore lanetan ikusi ahalko dugu. Lanak Iparraldeko herri txikiak giroa islatzen du. Era berean, oholatza gaineko emanaldiak kulturen arteko talka ere azaleratuko du.

KITZIKAZAN/K TALDEA

“Lanak Iparraldeko herri txikiak giroa islatzen du”

Euskara, antzerkiarekin uztartuz

Antzerkiarekiko maitasunak eta euskarazko lan bat plazaratzeko nahiak bildu zituen 2005eko udaberrian Amikuzeko gazte talde bat. Lehen antzezlanak jaioterrian kokatu nahi



AZAROAREN 18AN, GAUEKO
22:00ETAN HASIKO DA ANTZEZLANA.

zuten. Amikuzen egindako inprobisazio ariketek eta solasaldiek kideak elkar eza-gutu eta prestatzen lagundu zieten.

Taldeak berria izan arren, kideei antzerki munduko esperientziarik ez zaie falta. Donibane Garaziko Lizeoko, Xalbador Kolegioko edota inguru haietako antzerki tailerretan aktore lanetan ibiliak dira partaide asko.

Elkarte eta taldeen babesak

Kitikazan/k taldeak bakar lanean ez dira aritu. Oztibarreko antzerki taldea, Euskal Kultur Erakundea, Amikuzeko Gaztetxea, Zabalik Elkartea eta Domintxeneko herriko etxeak laguntza eskaini baitiote; Amikuze, beste hainbat tokirekin batera, euskal antzerkiaren gune bilaka dadin.

Behe Nafarroan hasitako ibilbideari jarraikortasuna eman eta indartu nahian, etorkizunari begira kultur talde gisa egituratu eta antzerki talde egonkorra sortu nahi dute.

Sarrerak Txiribogan salgai

“Gaztetasunak erabiltzen nau” emanaldia joateko Sutegiko auditorioan eserlekua erreserba daiteke. Sarrera 5 euroren truke eskura daiteke Txiribogan. Emanaldia larunbat honetan, azaroak 18, eskainiko da. Gaueko 22:00etatik aurrera.

ARITZ GORRITI

Joxean Gorgojoren pintura erakusketa

Pintura zaletasuna aspalditik dator. Paisajeak dira bere espezialitatea. Margolan berrienak Sutegin jarriko ditu ikusgai azaroaren 20an zabalduko duen erakusketan. Azaroaren 24a arte zabalik izango da erakusketa, 16:30etik 19:30era.



Irakurketa tailerra udal liburutegian

Usurbilgo Udal Liburutegiak ekimen interesgarria antolatuko du; irakurketaz gozatzeko tailerra. 0-6 urte arteko haurren gurasoei zuzenduta dago. Hiru izango dira haur literaturara hurbiltzeko Yolanda Arrieta idazleak eskainiko dituen saioak. Azaroaren 10ean hasi zen tailerra eta azaroaren 17an eta 24an izango du jarraipena. Arratsaldeko 14:45etik 16:15era udal liburutegian.

Sagasti eta sagardo arteko ibilaldi berri bat

Sagardo Egunak 25 urte bete ditu aurten. Beste ekimen batzuen artean, Sagardo Egunaren Lagunak sagasti eta sagardotegi arteko ibilaldiak antolatuko ditu. Hurrena igande honetan izango da, azaroak 19. Ametza Larrañagak gidatutako duen ibilaldia goizeko 9:00etan abiatuko da frontoiaren atzetik.

Konponbidea bultzatzeko Ahotsak

Azaroaren 23an Ahotsak taldeko hainbat kide izango dira Sutegin

Emakumeak, ideia askotari-koak eta Euskal Herri oso-koak. Batzen dituen oinarri hartuta, konponbidearen aldeko konpromiso argia dute Ahotsak ekimeneko kideek. Gatazken konponbidean emakumeen parte-hartzea ezinbestekotzat jota, hiru urteko lan isilaren fruitu da Ahotsak. Apirilaren 8an aurkeztua izan zen Donostian eta proiektu guztiak gauzatzea berrmatuko duen jokalekua aldarrikatu zuten, besteren artean. Ordutik, konponbidea bultzatzearen aldeko emakumeen hitzak ozen entzun dira.

Banatzen dituen bazterrean utzi eta euren iritzia agiri bakar batean bildu zituzten apirilaren 8an, Donostiako Miramar jauregian, hainbat ideia, tradizio eta sentipenetako emakumeek. Euskal Herriko alderdi politiko ia guztietako eta sindikatu guzti-guztietako 50 emakumek baino gehiagok izenpetu zuten lehen agiria, ekimena bere egiten dutela erakustera joandako alderdi eta sindikatueta emakume ugariren babesaz. PP, UPN eta UMP alderdi eskuindarretako emakumeak dira kale egin <uten bakarrik. EAJ, EA, Batasuna, AB, PSE-EE, PSN, PS, EB-Berdeak, IUN-NEB, Aralar, LCR, Nafarroa Bai eta Plazandreok alderdietako kideek sinadura jarri zuten lehen agiri hartan. Baita ELA, LAB, ESK, CCOO, UGT, CGT, EILAS eta EHNE sindikatuetaok ere.

Gatazka konpontzeko aukerak egon badaudela sinetsita daude sinatzaileak, eta elkarrizketa aldarrikatu dute tresna eraginkor gisa: “gure ustez, adostasuna lortzearen hitz egitea aurrez eman beharreko urratsa da, eta hori demokrazia indartzea da, ez ahultzea”. Konponbidea bilatzen laguntzeko, “aurreiritzi eta baldintzarik gabeko elkarrizketa abiapuntu



EZKERTIK HASITA: JONE GOIRIZELAIA (BATASUNA), CONCHI BILBAO (EB), NEKANE ALZELAIA (EA), GEMMA ZABALETA (PSE), AINTZANE EZENARRO (ARALAR) ETA ELIXABETE PIÑOL (EAJ). ARGAZKIA: GALTZAUNDI.

AHOTSAK-EKOAK USURBILEN

“Aitzagak antolatuta, Jone Goirizelaia, Gemma Zabaleta eta Nekane Alzelaia hitzaldia eskainiko dute Sutegin”

ona” dela uste dute, pertsona ororen eskubideen errespetua bezala.

Hiru oinarri, asmo bakarra

Konponbidea helburu, Ahotsak ekimeneko kideen asmoa hiru ideia nagusi hauetan gauzatu da. Batetik, bakea “eskakizun kolektibo eta lehen-tasun politikoa” dela uste dute, eta, beraz, guztion zeregina. Bakea ez dela edozein indarkeria mota desagertzera mugatzen, justizia eta demokraziarekin zerikusia duela uste dute.

Bigarren oinarritzat, proiektu oro egingarri izatearen eta bat bera ere ez ezartzearen ideia hartu dute Ahotsak ekimeneko emakumeek. “Bide politiko eta demokratikoak erabiliz, baldintza berdinetan, proiektu politiko

guztiak garatu eta gauzatzea berrmatu eta ahalbidetuko duen jokaleku demokratikoa bilatu behar da”.

Hirugarrenik, euskal herritarren erabakia errespetatu behar dela uste dute. Herritarrek esparru politiko-juridikoa aldatzeko edo mantentzeko borondatea badute, “guztiok beharrezko diren berme demokratikoak eta adosturiko prozedura politikoak ezarri eta errespetatzeko konpromisoa” hartu behar dutela uste dute erabaki hori gauzatu dadin, eta, “beharrezkoa balitz, erabakiak lege araudian isla izan dezan”.

Azaroaren 23a, Sutegin

Aitzaga elkarteak antolatu du azaroaren 23ko aurkezpen-hitzaldia. Sutegin, besteak beste, Jone Goirizelaia (Batasuna), Gemma Zabaleta (PSE-EE/PSOE) eta Nekane Alzelaia (EA) bilduko dira. Hitzaldia arratsaldeko 19:30ean hasiko da.

Hitz gezidunak

	Oherako arropa	▼	Donostiako auzoa	▼	Ongarri	▼	* DEITURA	▼	Guraso arra
	Poloetako biziduna		Alemania-ko hiria		Mementu		Sodioa		
	►		▼		▼		▼		▼
	* IZENA	►				+			
	Errepika								
Basa	▼	Belardia	► ▼				Urtearen erdian	►	
Katu emea		Arto irinez-ko opilak					1051		
►		▼				Haurra	►	▼	
						Nafarroako herria			
Arabieraz, kaixo	►				Uharte	► ▼			Nafarroako ibaia
Tolesgabe					Gizon izena				
►				Aurrizkia	► ▼		Bilo	►	▼
				50			Edari al-koholdun		
Harrapa ezak!	►		Harri txintzar	► ▼			Dizu, bokalik gabe	►	
Aiako			Nori atzizkia				Kontso-nantea		
►			▼	Automatak	►		▼		
				Sufrea					
Alemania-ko hiria	►		▼				Kasik	►	

*Usurbilen bizi den idazlea. Soluzioa, 17. orrialdean.

Egilea: LUMA O. E.

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 USURBIL • 943 370 344

Zendoia



Kale Nagusia 35 • 943 37 40 71

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

ALBISTEAK EDIZIO JARRAITUAN • ALDIZKARIA ON LINE • INKESTAK • FORDAK • POSTA

www.noaua.com

USURBILGO ATARIA

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Usurbildarrak Behobia-Donostian

Kirrol festa ederra bizi izan zen pasa den igandean Behobia-Donostia lasterketaren 42. edizioan. 11.739 lasterkari izan ziren irteera puntuan eta 20 kilometroko ibilbidea egin ondoren horietatik 11.719 iritsi ziren helmugara. Azken horien artean ziren hainbat usurbildar ere, aurtengoan 34 izan baitira proba hau amaitzea lortu duten herritarrak.

Marka ona lortzeko helburuarekin batzuk, proba amaitu asmoz beste batzuk, usurbildarrak ere Behobiatik Donostiarako proba egitera animatu ziren igandean. Antolatzaileen webgurutik ateratako sailkapenaren arabera, 34 izan ziren helmuga puntura iritsi ziren herritarrak, 32 gizonetzkoak eta 4 emakumezkoak. Horietatik denbora onena egin zuena, berriz, Iñaki Larrañaga izan zen ordubete eta 14 minututik behera behar izan baitzuen proba amaitzeko.

Juan Mari Agote Goiaran 01:30:16
Mikel Alkorta Alustiza 01:24:21
Oroitz Altuna Ibaruren 01:35:15
Iñaki Añorga Unanue 01:18:10
Xabier Arruti Landa 01:33:22
Mikel Berastegi Elozegi 01:37:31
Ibon Beristain Atxega 01:20:11
Iñaki Eizagirre Sagardia 01:42:55
Arantxa Eizagirre Zaldia 01:28:53
Juanjo Estevez Martin 01:23:06
Lur Etxeberria Gurrutxaga 02:01:02
Idoia Ezeiza Iruretagoyena 01:29:46
Axier Huegoñ Burgos 01:48:41
Koldo Huegoñ Zapiain 01:22:00
Txus Iglesia Rio 01:48:40
Joxe Mari Irazusta Iribar 01:37:17
Edu Jauregi Torrecilla 01:37:17
Carlos Jimenez Goya 01:44:33
Iñaki Larrañaga Osoz 01:13:40
Juanjo Lertxundi Azkue 01:28:56
Koldo Lertxundi Azkue 01:16:27
Txiki Manterola Aizpurua 01:16:41
Iban Maritxalar Elizondo 01:24:28
Igor Matxain Arrospide 01:50:25
Iñaki Mayozer Rekondo 01:50:47



J. Carlos Perez Lizarralde 01:22:43
Joseba Rezola Eizagirre 01:29:22
Jose Rodriguez Gonzalez 01:47:10
Jose Sanchez Garcia 01:26:30
Jon Tapia Lizarraga 01:15:38
Andoni Udabe Astigarraga 01:36:47

Idoia Udabe Pagola 02:01:01
Aitor Unanue Lopez 01:54:12
Pello Zumeta Beraetxe 01:30:49

JOSU ARANBERRI

Usurbil Judo Elkartea Euskadiko talde onena

Pasa den igandean Erreterian jokatu zen senior mailako Euskadiko Judo Txapelketan 12 domina eskuratu zituzten Usurbil Judo Taldeko kideek. Urrezko domina lortu zuten Andoni Aizpuruak (-60 Kg.), Aitzol Arrospidek (-73 Kg.), Egoitz Morak (-90 Kg.), Iker Lizarribarrek (-100 Kg.), Mikel Pongak (+100 Kg.) eta Oiana Blancok (-52 Kg.). Zilarrezkoa Ibai Peñak (-60 Kg.), Xabier Urkizuk (-73 Kg.), Nerea Sanzek (-48 Kg.), Nerea Arrutik (-70 Kg.) eta Ane Perezek (-78 Kg.) eta brontzezkoa Sara Quijanok (-63 Kg.).

Asteburuko herriko kirol kartelera

Asteburu honetan eskubaloietan futbol partidak ikusteko aukera izango da Oiardon eta Haranen. Eskubaloietan dagokionez, Usurbil Kirol Elkarteak kadete nesken taldeak Verkol-Aloña taldearen aurka jokatu du kiroldegian Gipuzkoako txapelketako azken faseko bigarren neurketa. Larunbat goizean, berriz, eskola kiroleko partidak izango dira. Harane futbol zelaian, aldiz, Emakumezkoen ligako taldeak Euskaldunaren aurka jokatu du larunbatean 15.30ean eta Udarregiko infantil mailako taldeak San Ignacioren aurka 11.00etan.

Ikus-entzunezkoen II. rallya antolatu du Topagunea

Euskararen erabilera bultzatzea du helburu Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak (NOAUA! elkarte ere Topaguneko kide da). Helburu horri begira, gazteen arloa da bereziki zaintzen dituenetako bat. Izan ere, frogatuta dago gazteentzako jarduera erakargarriak euskaraz antolatzea oso bide eraginkorra dela hizkuntza ohituretan eragiteko. Honen harira, Ikus-entzunezkoen II. Rallya antolatu du Topagunea.

-Euskal Herriko gazte euskaldunek parte hartu ahal izango dute.

-Parte-hartzaileak 16 eta 35 urte bitarteko gazteak izango dira. Taldeak arituz gero, gutxienez, kideen erdiek bete beharko dute baldintza hori.

-Rallya, gehienez, hiru minutuko ikus-entzunezko lana sortzean datza.

-Gaia eta ezaugarriak zeintzuk izango diren egunean bertan adieraziko da.

-Hizkuntzaren presentzia ezinbestekoa da, ahozkoa edo idatzizkoa. Erabiliko den hizkuntza euskara izango da.

-Antolakuntzak taldeen eskura jarriko dituen baliabideak honakoak dira: PCa XP-Pro, USB eta Firewire loturak, Premiere 6.5 programa eta bateriak kargatzeko hainbat gune.

-Parte-hartzaileek ekarri beharko dituzte kamera, euskarri digitalak, kargadore, ordenagailuetara lotzeko beharrezko diren kableak e.a.

-Ikus-entzunezko lanak MiniDV formatuan entregatu beharko dira aipatutako orduan

Sari garrantzitsuak

Lehen saria: 1.500 eurokoa. Bigarren saria: 1.200 eurokoa. Hirugarren saria: 900 eurokoa.

Lehiaketan izena emateko azken eguna azaroaren 27a izango da. Parte-hartzaileek bidali beharreko datuak hauek dira:

-Izen-abizenak, jaiotze data, telefonoa eta e-posta, helbide osoa, NAN-aren fotokopia

-Izena emateko zuzendu hurrengo helbideetara "Euskal Herriko II. Ikus-entzunezkoen Rallya" lelopean:



Topagunea
Arlozabal kalea, 8bis - 1C
48220 ABADIÑO (Bizkaia)
e-postaz: gazteak2@topagunea.com

Lanbide Heziketa Udal Ikastetxea
Karmengo Andre Maria, 17
01400 LAUDIO (Araba)

Antolatzaileek aditzera eman dutenez, talde parte-hartzaile kopurua mugatua izango da.

Eguneko goardiako farmaziak

Azaroak 16, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Azaroak 17, ostirala
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Azaroak 18, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Azaroak 19, igandea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Azaroak 20, astelehena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Azaroak 21, asteartea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Azaroak 22, asteazkena
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Azaroak 23, osteguna
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Azaroak 24, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Azaroak 25, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Azaroak 26, igandea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ.
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11, Hernani.
943 336 077 (Urte osoan).

Urte osoko goardiako farmaziak www.noaia.com webgunean

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN	(Gipuzkoa plazatik)
Zubieta-Donostia	12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T) / 14:35*(T) / 19:15(T)	
Donostia-Zubieta	JAI EGUNETAN
(Gipuzkoa plazatik)	Zubieta-Donostia
7:15* / 9:00 / 12:45(T) / 13:45* / 18:45	11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) / 21:35 (T)
LARUNBATETAN	Donostia-Zubieta
Zubieta-Donostia	(Gipuzkoa plazatik)
8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)	11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) / 21:00 (T)

* Eskola egunetan.

T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.


ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
TIF 36 21 64
USURBIL

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78
20170
USURBIL


ilea
painedegia
mistoia
ZUBIARENEA4, USURBIL
943361951

Agenda !!

Azaroak 18, larunbata

- "Gaztetasunak erabiltzen nau" antzerkia Sutegin. 22:00etan. Antolatzailea: Nafartarrak Kultur Taldea.

Azaroak 19, igandea

- Sagasti eta sagardotegi arteko ibilaldia. Goizeko 9:00etan frontoitik abiatuta.

Azaroak 20, astelehena

- Masaje ikastaroa hasiko da Haur Eskolan, 16:30etik aurrera.
- Joxean Gorgojoren erakusketa zabalduko da arratsaldeko 16:30ean Sutegiko erakusketa-gelan.

Azaroak 22, asteazkena

- Santa Zeziliren omenezko kontzertua Sutegin. 19:00etatik aurrera.

Azaroak 26, igandea

- "1, 2, 3 Inaxito" antzezlanaren antzezlan Sutegin. 17:00etatik aurrera. Sarrerak, aldeztu aurretik, 2 euro Oiardo kiroldegian. Egunean bertan eta takillan, 3 euro.

Azaroak 27, astelehena

- Masaje ikastaroa Haur Eskolan, 16:30etik aurrera.

Musikaren txokoa !!



Anje Duhalde, "Sorminetan"

Duela 8 urte argitaratu zuen kantu propioz osaturiko azken diskoa Anje Duhaldek. 2000 urtean, George Brassens-en kantuen bertsioez osatutako diskoa plazaratu zuen, beraz, zortzi urte eta gero iritsi zaizkigu Anje Duhalderen kantu berriak. Eta ohikoak dituen estiloetara itzuli da Lapurdiko kantaria: rock, blues eta folk doinueta barrena dabilta "Sorminetan" disko berriko kantuak.



Kantu berrien artean, hiru bertsio jaso ditu hizpide dugun diskoan. Euskal kantuararen lehen sustatzaile izan zena omendu

asmoz, Mixel Labegerieren abesti bat grabatu du. "Oi kanta berri" izeneko. Bertsioa biribiltzeko, Benito Lertxundirekin batera aritu da kantuan.

Ez da birmoldatu duen kantu bakarria izan. Labegerieren kantutaz gain, beste bi bertsio jaso ditu: John Hiatt estatubatuararen «Gitarra zahar honekin» eta Jimmy McCarthy irlandararen «Agur lagun (ride on)».

Kantu askoren hitzak Amurizak idatzi ditu, hamahirutik zazpi. Gerardo Markuletak idazleak beste bi abesti idatzi ditu: "Heldu artean" eta "Ezinkoplak". Bilboko Kafe Antzokian arituko da datorren azaroaren 24an.

"1, 2, 3 Inaxito",

bertso-antzerki ikusgarria

Denborapasa !!



⬤	P	⬤	I	⬤	S	⬤	T	⬤
	P	I	N	G	U	I	N	O
		J	U	A	N	M	A	R
⬤	B	⬤	L	A	R	R	E	A
K	A	T	E	M	E	A	⬤	U
⬤	S	A	L	A	M	⬤	I	R
X	A	L	O	⬤	B	I	Z	⬤
⬤	T	O	⬤	L	E	G	A	R
A	I	A	R	⬤	R	O	B	O
⬤	A	K	I	S	G	R	A	N
								I

Soluzioa: Juan Mari Torrealdei.

Trikuharri taldeak

"Inaxitoren Ametsak" bertso-antzerkia sortu zuen 2003ko udan. Bi urtetan

ametsetan ibili eta gero, ezkutaketan dabil orain Inaxito, jolasean: zenbakiak ezkutaketan. "1, 2, 3... Inaxito" bertso antzerki berria herriz herri dabil zenbakien bila.

Istoria xelebreak dira nagusi.



Bertso, musika, kantu eta oso pertsonaia bereziekin osatutako istorioak. Amaieran, hurrei irakatsi nahi zaie dena dela posible irudimena erabiliz; zenbakiak aurkitzea ere bai! Irudimena erabiliz bizitza politagoa dela, alegia.

5-12 urteko gaztetxoentzat oso egokia da antzezlan hau. Azaroaren 26an igandea, arratsaldeko 17:00etan Sutegin. Sarrera, 3 euro. Aldez aurretik, Oiardo kiroldegian 2 eurotan salgai.

ETXEBIZITZA

- Usurbilen hiru logelako etxe bat alokatzen da. Abala eskatuko da. 649261704.
- Usurbilen pisu bat alokairuan hartuko nuke. Tf: 630 032 779.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxi bat alokatuko nuke Usurbilen. 664774024.
- Galtzaragaña 5 zenbakian garaje bat daukagu salgai. 943 361 219.
- Zubiaurrenea 2 zenbakian berrituta dagoen lokal bat alokatzen da. 658758237.
- 80.000m2ko lursaila salgai. Ura eta bertarainoko bidearekin. 664774024.
- Garaje itxita salgai, 18 m2. Merkea. Puntapax bidean. 610 29 18 64 (Carlos).

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Bi emakume eskaintzen dira goizez bi orduz lan egiteko. Deitu 659879040 / 943 365 737 telefonora.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da, orduka zein egun osoz. 610 669 335.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Magisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen

profesionala eskaintzen da. Telefono zenbakiak: 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- Kamarero edo kamarera euskaldun bat behar da Zumeta jatetxean. Interesatuak deitu 943 36 27 13.
- Arratsaldeko etxeko lanak egiteko emakume baten bila gabiltza 645403905.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Bizirik edo jateko garbituta antxumeak dauzkatz salgai. 664774024
- Tximenearako egurra salgai. Akazia, pinua eta pagoa. Interesatuak deitu 664774024.
- Bertako babarrun beltza eta baserriko oilaskoak saltzen ditut modu onean. Interesatuak deitu 664774024 telefono zenbakira.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685757962.
- Citroen Berlingo bat, kamara isotermoduna kondizio onetan daukagu salgai. 676453176.
- Snow egiteko tabla bat fijasioekin salgai. 679185102
- Terrenoa landatzeko erosi nahi dut, edifikatzeko ez. Tf: 943 36 11 09.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. Emaizta profesionala, modu onean. 617242660 / apore@euskalnet.net
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.

Txerrimunik ordaintetan !!

Zorionak Nahia!

Gure etxeko pixpirriak azaroaren 16an urtebete beteko du, muxu handi bat Jon Mikel, Malen eta etxeko guztien partetik.



Zorionak Saioa!

Azaroaren 18an egingo duzu zure lehenengo urtebetetzea eta etxeko guztiok gogoratu nahi izan dugu hau. Zorionak eta muxu potolo bat!



JAIOTAKOAK

- Ibai Rios Lebron, azaroaren 4an.

- Mikel Zabaleta Ugarte, azaroaren 7an.

HILDAKOAK

- Toribio Herrero Calzada
Azaroaren 13an hil zen
73 urterekin Kaleberrin.



- Maria Milagros
Zubizarreta Aranburu
Urriaren 30ean hil zen.

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Fototeka, Plis, Plas, Txalo ta Jolas, "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak"... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Orain, bazkide egiten bazara, Usurbilgo baserrien liburua jasoko duzu opari gisa.

Bazkide egin zaitez!

Noaua!!

36 euro urte osorako

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Telefonoa: _____
 E-posta: _____
 Kontu korrontea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Usurbildarrentzat egindako aldizkaria **ABERASTU ZAITEZ!** **EGIN ZAITEZ** **BAZKIDE**

NOAUA! Kultur Elkarteko bazkide egiten bazara,
“Usurbilgo baserriak eta baserritarrak”
liburua jasoko duzu doan

BAZKIDETZA ESKAERA

Izen delturak:

Jalotze data:

Sexua:

NAN zenbakia:

Helbidea:

Herria:

Posta kodea:

Bizibidea:

Tel:

e-mail:

Banketxea:

Kontu korronteko zkia (20 digitok):

Bazkide KUOTA: 36 € (Uztailen kobratuko da kontu korrontetik)

elkartea@noaua.com ☎ **943 360 321**

JOSE AZPURUA
UNANUE

TELATUAK • FATXADAK

Pinkora 4300 1-54 / Losarles-Oñate
943 36 17 83
Oñate 4300 1-54 / Losarles
943 36 58 02

URDANTZI

943 32 72 64
649 43 54 75
649 43 54 76

ERRAZKIN

943 372 679
943 365 125
629 420 565
649 435 470
urki.mutaco@euskaltel.net

Josue
Aranzazistroki

943 360 550
606 372 105
JOSUE ARANZAZISTROKI

Antonio
URRUZOLA

Tel: 943 376 415
Faxa: 943 360 510
Astasuain Industrialdia, 3

BEREZIARTUA
S.L.

egurra eta
egur-aluminiozko
leihak - eskaierak
Aginaga 943 371 571

BARRENETXE

Sakamendi Arriaga, Imanol
Tel. 943 362 664
Faxa 943 374 002
Barron Etxe Kalea
ZUBIETA

Javier
Orbegozo

Gasa-berokuntza
659 602 789
Ennea txiki 13, Bask

Jose txo
Ikatzeta

687 951 225

Lataillade

gasa, berogintza
klimatizazioak eta
mantenimendua
609 888 021

portularrume

Bainuko altzairuak
Manparak
943 364 637

JOSEBA
ARANGUREN

943 830 072
659 883 912

andoni
marcoak

605 702 517
Arrantzale p. 8-20

FERNANDO
PINTURAK

en papela ketak
lurzorruak...
943 366 019

IZAGIRRE

943 365 095
609 068 111
G012 AR46 ETXEA 37
KALEZAR

ARGILAN

Jose Luis Borda Zugasti
Industria instalazioak kontinuetak
943 361 380
629 272 859
Borda Berri 5 lizea

ofizioen gida

IGELTSERITZA

PROZTEGIAK

ITURGINTZA

PINTURAK

ELEKTROTEKIA

Gida honetan azaldu nahi baduzu: 943 360 321 • publizitatea@noaia.com